



VILLABONAKO UDALAREN ETA ZUBIMUSU IKASTOLA KOOP ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Villabona, 2024ko ekainaren 19a

BILDURIK

Batetik, BEATRIZ UNZUE ESNAOLA andrea, Villabonako Alkate andrea.

Bestetik, PILI ITURBE URDANGARIN andrea, adinduna. Ondorio hauetako helbidea: KALE BERRIA 55, 20150 VILLABONA; eta Nortasun Agiria: 72495483N, ZUBIMUSU IKASTOLA KOOP elkartearen ordezkaria.

Ni, MIKEL VON WICHMANN PAVLETICH jauna, Villabonako Udaleko Idazkaria, aurrean nagoela.

PARTE-HARTZAILEAK

BEATRIZ UNZUE ESNAOLA, Villabonako Udalaren izenean eta ordezkaritza (Erreboteko Plaza z/g; IFK P2008100F), Alkate gisa esku hartu du, eta Tokiko Gobernu Batzarrek 2024ko ekainaren 19an hartutako erabakiaren bidez eman zaio egintza honetarako ahalmena.

PILI ITURBE URDANGARIN andrea, ZUBIMUSU IKASTOLA KOOP elkartearen izenean eta ordezkari gisa. ZUBIMUSU IKASTOLA KOOP ELKARTEA Eusko Jauriaritzaren Elkartearen Erregistroan inskribaturik dago, bere helbidea 55, 20150 VILLABONA da, eta bere IFK F75109678. PILI ITURBE URDANGARIN andreak Elkartearen ordezkari gisa hartu du parte, eta, ondorioz, bera da Elkartearen legezko ordezkaria, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko Legearen 15. artikuluan araberak.

Bi alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta xede horrekin honako hau

ADIERAZTEN DUTE

1. ZUBIMUSU IKASTOLA KOOP Elkarte (aurrerantzean Herri Ikastola), Irakaskuntzako Kooperatiba bat da, Euskal Herriko Ikastolen konfederazioko kidea eta bere izaera juridikoa irakaskuntzako kooperatiba integral batena da. Horren titularrak gutxi gorabehera hirurehun eta hogeita hamar bazkide dira; bazkide erabiltzaileak, bazkide langileak, bazkide kolaboratzaileak eta bazkide ez kolaboratzaileak. Zubimusu Ikastolak 2019. urteaz geroztik Herri Onura izendapena du. Herri onura izendapenaren bidez, Eusko Jauriaritzak Zubimusu Ikastolaren hezkuntza jarduerak herritarren interes orokorrekoak eta irabazi asmorik gabekoak dela aitortzen du. Horrela, Amasa-Villabonako Udalak, Ikastolaren jardueraren helburuak izaera publikoak duela aitortzen du, irabazi asmorik gabeko zerbitzua ematen duelako; eta izaera hori aintzat hartzen du erakunde horrekin dituen harreman guztietarako.

Bere Estatutuen arabera, xedatzen duela Bere ikasleen heziketa, kultur eta kirol alorra sustatzea antolatzen dituen jardueren bidez (hezkuntzakoak, eskolaz kanpokoak eta lotutakoak) eta zerbitzu osagarrien ematea, irabazi asmoak alboratuz eta sor litezkeen etekinak banakatzea debekatuz; bere gobernu organoak demokratikoki aukeratzen dira kooperatiben bazkideen artean, estatu sozialetan xedatutakoaren arabera.

2. Elkarteak ondorengo jarduerak eraman nahi dituela aurrera Villabonako udalerrian:



- Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartek egindako hezkuntza, kultura eta kirol alorreko jarduerak.
 - Eskola-komunitatearen euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzeko jarduerak edo programak.
 - Hezkuntza zabaltzeko jarduerak, hezkuntza garapen komunitarioko programak eta aisialdirako hezkuntza programak.
 - Berdintasunarekin, hezkidetzarekin eta garapen iraunkorrarekin lotuta, Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartek garatutako eskola programak.
 - Balioak, heziketa eta errespetua sustatzeko jarduerak edo programak. Ohitura osasungarriak sustatzeko jarduerak edo programak.
 - Herriko eskola-komunitatearen bizikidetzan hobekuntza ekar dezaketen jarduerak edo programak.
 - Herriko beste eragile batzuek ikastetxean egindako jarduerak, ikastetxeari gastua sortzen badiote eta gastu horretarako ez badago aurreikusita beste erakunderen baten laguntza.
 - Irakaskuntzaren kalitatea sustatu eta eskola kudeaketa hobetzeko proiektuak.
 - Irakaskuntzarako jarduerak eta proiektu berritzaileak.
 - Udalerrian euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzeko jarduerak.
 - Ikasle etorkinen harrera eta kulturartekotasuna sustatzeko programak.
 - Udalerrriaren banaketa geografikoa eta orografia kontuan izanik, ikasleen eskola-bidearen irisgarritasuna bermatzea.
 - Bestelako jarduerak osagarriak.
3. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikulua arabera udalerriei dagozkien eskumeneri artean, honako hauek daude:
- Kirola, kirol-instalazioak eta aisialdirako instalazioak sustatzea.
 - Kultura eta kultura-ekipamenduak sustatzea.
 - Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzea.
 - Hiri-ingurumena
 - Gizarte-beharrizaneko egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako berehalako arreta
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 16. artikuluan honako hau arautzen da: klausula unibertsala udal-eskumeneri buruz eta eskumen propio, transferitu edo eskuordetu ez diren jarduerak, zerbitzu edo prestazioei buruz, 1. puntuak honela dio:
- "1.- Udalerriek, beren eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartu ez arren, beste edozein jarduerak, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute, baldin eta herritarren bizikidetasunaren hobekuntza dakarren edozein jarduerak-eremu antolatua eta kudeatzeko bada eta komunitatearen edonolako behar edo interesei erantzuten badie."*
- Ildo horretan, udalerriri dagokion eskumenean oinarriturik, hitzarmen honen helburua da Amasa-Villabonako Udalak Zubimusu Ikastolari egiten dizkion ekarpenak arautzea, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin adostuta ez dauden gaiei dagokienez. Horien artean aipatu beharrekoetarikoa bat da eskola-garraioarena. Zerbitzu hori ezinbestekoa da udalerrriaren banaketa geografikoa eta orografia kontuan izanik.
4. Herriko ikastolak irabazi asmorik ez duenez, jarduerak egitean ezingo du diru-irabazirik izan.
5. Jarduerak/ek ez du/te kontratu izaerarik bere edukia ez delako Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak araututako kontratuetan sartzen. Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikulua bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu "Administrazioak zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako lankidetzak hitzarmenak, berariazko erregulazio arauen arabera egindakoak hain zuzen, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan".

Agertutako alderdiek interes berbera dutenez, lankidetzak-hitzaurren hau sinatu dute, ondoko klausula hauei jarraituz:



KLAUSULAK

1. Xedea

Lankidetza hitzarmen honen xedea da Villabonako Udalaren eta Elkartearen arteko lankidetzarako baldintzak ezartzea.

2. Hitzarmenaren xede diren jarduerak

Elkartea eta Villabonako Udalaren arteko elkarlana, nagusiki jarduera hauetan zehaztuko da:

- Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartek egindako hezkuntza, kultura eta kirol alorreko jarduerak.
- Eskola-komunitatearen euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzeko jarduerak edo programak.
Hezkuntza zabaltzeko jarduerak, hezkuntza garapen komunitarioko programak eta aisialdirako hezkuntza programak.
- Berdintasunarekin, hezkidetzarekin eta garapen iraunkorrarekin lotuta, Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartek garatutako eskola programak.
- Balioak, heziketa eta errespetua sustatzeko jarduerak edo programak. Ohitura osasungarriak sustatzeko jarduerak edo programak.
- Herriko eskola-komunitatearen bizikidetzan hobekuntza ekar dezaketen jarduera edo programak. Herriko beste eragile batzuek ikastetxean egindako jarduerak, ikastetxeari gastua sortzen badiote eta gastu horretarako ez badago aurreikusita beste erakunderen baten laguntza.
- Irakaskuntzaren kalitatea sustatu eta eskola kudeaketa hobetzeko proiektuak.
- Irakaskuntzarako jarduera eta proiektu berritzaileak.
- Udalerrian euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzeko jarduerak.
- Kaste etorkinen harrera eta kulturartekotasuna sustatzeko programak.
- Udalerriaren banaketa geografikoa eta orografia kontuan izanik, ikasleen eskola-bidearen irragarritasuna bermatzea.
- Bestelako jarduera osagarriak.

Jarduerak ondorengo baldintzetan eramango dira aurrera:

- a) Jarduerak antolatzeko ardura osoa euren sustatzailearena da, kasu honetan Elkartearena, eta hori antolatzean, aplikagarri den araudian aurreikusitako baldintza guztiak eta beharrezko baimen guztiak (Villabonako Udalaren eta bestelako erakundeena - Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak, etab.) betetzeko betebeharra du.
- b) Ekitaldi horien antolaketak dakartzan lan eta gestioak osotasunean Elkartearen esku geratuko dira.
- c) Elkartek bere emanaldiak iragartzeko erabiltzen dituen euskarrietan Villabonako Udalaren aipamena egingo da.
- d) Elkartearen lankidetza Villabonako Udaleko Kirolak, Gazteria eta Hezkuntza sailak ikuskatuko du.

3. Dirulaguntza

Villabonako Udalak diruz lagunduko du Elkartea hitzarmen honetan zehaztutako jarduerak garatzeko. Hitzarmena sinatzen den urtean, dirulaguntzaren zenbatekoa 43.074,90 €-koa izango da 900.481.322.00.01 aurrekontu partidaren kargura. Hurrengo ekitaldietan dirulaguntza emateko baldintza izango da Villabonako Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoan jasota egotea, eta udal-aurrekontuetan dirulaguntza izenduna esleitzea eta dirulaguntza emateko baldintzak betetzea.

Elkartek aurreko urtean jasotako dirulaguntza aldatzeko eskaera egin nahi izango balu, hurrengo urteko jardueren eta diru-sarrera/gastuen aurreikuspena aurkeztu beharko du irailaren 15a baino lehen (Udalak horretarako prestatutako inprimakien bidez).

4. Ordainketa mota

Udalak konpromisoa hartzen du onartutako dirulaguntzaren % 90a gehienez ere hilabeteko epean



AMASA-VILLABONA Villabonako Udala

ordaintzeko, hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita, hitzarmenaren indarraldiko lehen urtean.

Hurrengo urteetarako, % 90a ordaintzeko, udal-aurrekontuak behin betiko onartuta egon beharko dira. Behin aurrekontuak onartuta, Udalak ordainketa egingo du urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen.

Gainerako % 10a erakunde onuradunak emandako funtsen erabilera hitzarmenaren termino eta baldintzen arabera behar bezala justifikatu ondoren eta Udalak justifikazioa balioztatu ondoren ordainduko da, gehienez ere bi hilabeteko epean justifikazioa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita. Elkarrekin dirulaguntzaren justifikazioa **otsailaren 15a baino lehen** aurkeztu beharko du.

Justifikazio-memoriak honako hauek jaso beharko ditu: dirulaguntzaren xede diren jardueren deskribapen zehatza, lortutako estaldura (artatutako pertsona kopurua, emakumeak, gizonak, adina, erabilitako hizkuntza...) eta lortutako emaitzen ebaluazioa.

Memoriak jarduera osoaren balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) jasoko ditu, eta diruz lagundutako jardueren gastu guztiaren egiaztagiriak ere, horien zerrenda xehatuarekin batera.

Gastuen egiaztagiriak: fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten frogak-balio baliokidea duten gainerako dokumentuak, diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ondoriozko gastuei eta sarrerei dagozkienak.

Faktura edo dokumentu baliogabe oro ez da kontuan hartuko jasotako dirulaguntza justifikatzeko orduan.

Dirulaguntza hau, xede bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderikiko bateragarria izango da, bikoitu dirulaguntzen arautegi erregulatuak ezar lezakeena kaltetu gabe. Dena den, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez berak bakarrik ezta beste dirulaguntza, sarrera edo baliabideri gehituta ere.

5. Zeharkako gaiak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legean xedatutakoa bete beharko da, bereziki 4. artikuluan (printzipio orokorrak betetzeari buruzkoa), 17. artikuluan (estatistikak eta azterlanak egokitzeari buruzkoa), 19. artikuluan (edozein euskarritan hizkera sexista ez erabiltzeari buruzkoa) eta 24. artikuluan (zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari buruzkoa).

Erabilitako dokumentazio guztian (programa aurkezteko idazkiak, testuak, galdetegia, txostenak, etab.) hizkera ez-sexistaren irizpideak aplikatu beharko dira.

Halaber, Villabonako Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean onartuta dituen irizpideak bete beharko dira.

6. Hizkuntza irizpideak

Udalak beste entitate publiko edota pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

Udalak pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenaren edukia nolakoa den, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza klausulak sartuko dira.

Diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar-multzo zehatzugabe batekin zuzenean harremana edukitzea, euskararen erabilera bermatuko da.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, euskaraz egingo dira.

Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik eratorri daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da, arrazoitutako salbuespenak izan ezik, — hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea — hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen.

Haur eta gazteentzako egiten diren jarduerak euskaraz egingo dira beti.



AMASA-VILLABONA Villabonako Udala

Haur eta gazteekin aritzen diren hezitzaileei Udalak formazio soziolinguistikoa emango die, eta Udalaren irizpideak jakinaraziko zaizkie.

7. Villabonako tokiko merkataritza laguntzeko gomendioa

Dirulaguntza honen erakunde onuradunari gomendatzen zaio bere jarduerak gauzatzeko beharrezkoak dituen ondasun eta zerbitzuen erosketak, ahal dela, Villabonako establezimenduetan egitea. Ekintza honen helburua tokiko merkataritza hazten eta indartzen laguntzea da, komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialean lagunduz.

8. Jarraipen batzordea

Hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da.

Batzorde horrek hitzarmenaren inguruan sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak konpontzeko ditu, eta hitzartutako jarduera bakoitza eta alderdiek hartutako gainerako betebeharrak betetzen diren ebaluatuko du.

9. Auziak

Hitzarmen hau garatzean alderdien artean auziren bat sortuz gero, aurreko klausulan ezarritakoa eragozpen izan gabe, administrazioarekiko auzien jurisdikzio bidez ebaztuko dira.

10. Ez-betetzeak

Elkarteak ez baditu betetzen lankidetzaren hitzarmen honetan bere gain hartutako obligazio eta konpromisoak, itzuli egin beharko du jasotako dirua, dena edo zati bat, edo ez zaizkio dagozkien zenbatekoak ordainduko. Itzuli beharrekoa ez-betetzearen larritasunaren arabera izango da.

Hitzarmen honetan ezarritakoa ez betetzeak, edo jasotako kopuruak dirulaguntza ematea eragin zuten helburuak ez diren beste batzuk betetzeko erabiltzeak berekin ekarri ahal izango du, kasuan kasuko espedientea izapidetu ondoren, emandako dirulaguntza galtzea, eta jasotako zenbatekoak gehi dagozkien legezko interesak Villabonako Udalari itzuli behar izatea, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 41. eta 42. artikuluek eta horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. Artikuluek ezarritakoari kalterik egin gabe.

11. Indarraldia

Hitzarmen honen indarraldia 4 urtekoa izango da, sinatzen denetik kontatzen hasita. Edozein unetan, paragrafo honetan aurreikusitako epea amaitu baino lehen, hitzarmeneko alderdiek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo hitzarmena iraungitzea.

Eta bi alderdiak ados daudela erakusteko, hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako egunean eta tokian.

VILLABONAKO UDALEKO ALKATEAK,



Izpta.: BEATRIZ UNZUE ESNAOLA

ELKARTEAREN ORDEZKARIAK,

Izpta.: PILI ITURBE URDANGARIN



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

VILLABONAKO UDALEKO
IDAZKARIAK



Izpta.: MIKEL VON WICHMANN PAVLETICH